

## TONTORRETIK BEGIRA

### Abade baten oroipenak

#### Sarrera

Izenburu hori dau Labayru Ikastegiaren *Sutondoan Sortaren* barruan argitaratu dan liburu txukun eta atsegin batek. Esan dagidan lehenengo-lehenengorik Juan Bizente Gallastegi dogula liburu honen egilea. Lekukotasun-liburua da. Egileak bere bizitzan, abade-bizitzan batez be, ikusi eta bizi izan dituanak biltzen ditu hemen, jario gozoko kontalari iaio batek egin leikeanez.

Bizitzaren tontorretik begira jarri jaku Juan Bizente Gallastegi abade durangarra. Tontorrera heltze hori bere abadetzako urrezko ezteguetara heltzearen metafora izan daiteke. Eta ikuspegi eder, askotariko eta gustagarria eskaini deusku irakurleoi. Esperientziaren eta bizipenen labean prestaturiko jaki atsegina. Bizi-hariaren surtako hauspean erretako ogia.

Ez da eleberria, ez historia liburua, ezta autobiografia be. Autobiografia kutsua izan arren eta autobiografiatzko argibide ugari bildu arren, ez da izan hori egilearen asmoa; areago: nahita edo beren-beregi ahalegintzen da irakurleari ideia hori burutik kentzen. Geure burua hor irakurlearen bistan agertzen lotsa garela dirudi. Nahiago izaten da, gehienetan, ezkututik,

edota tontorretik bada be, norbere burua ikusmiran jarri barik, ingurumarian jazotzen dana kontatzea, sasoi bateko gizartearen lekukotasuna jasotzea, iragan hurrekoa, herritarrekin, eliztarrekin, urliarekin eta sandiarekin bizi izanikoa agertzea, ezinbestean nahiko mugatua dana. Hori egiten dau liburu honen egileak; egoki, egin be.

Era honetako liburuak, ustez, ez dabe hots handirik egiten. Ia ausartuko nintzateke esaten, ez dabela lortzen merezi daben oihartzunik be. Gaur egun bestelako literatura liburuak eta batez be eleberriak dira euskal letrazaleen gogotan eta komunikabideen ahotan dabiltzanak. Beste honeek, toki mugatukoak izatearen marka, bertakoentzat alde badabe be, gainerako guztientzat kontra dabe. Dana dala, mugatua bai, hemen guztia mugatua dan heinean, baina bestela, belaunaldi baten eta sasoi baten izaera egokien jasotzen eta adierazten dabenetarikoak dirala esango neuke. Alde batetik hori, baina bestetik, jendeak oraingo giro irabiatuan, informatikaren zurrunbiloan sarturik, liburuak irakurtzeko astirik eta patxadarik hartu ezina dago. Kezka hori, gaur egun gutxi irakurtzen dala, erabili genduan bion artean Markina-Xemeinen aurkezpena egin eta handik egun batzuetara Karmengo klaustroan kontu-kontari jardutean. Hainbeste pertsonari, ustez euskal liburuak maite ditueni, bidali eta banaka batzuk izan ezik gainerakoak ezelako erantzunik ez... Halan be, hori liburu-mota guztietarako bardintsua da. Egin-eginean be, liburu hau egokia da, sortaren izenak berak dinoanez, *sutondoan* unetxu bat hartu eta gozo-gozo irakurtzeko. Nik neuk, *sutondoan* ez, baina neure gelako txokoan, isiltasunean, hartu ditut unetxu batzuk.

Holan berregin ahal izan ditut sasoi haretako hainbat kontu, Markina-Xemeinen, Etxebarrin, Barinagan eta Gerean abadezereginak betetzen zituaneakoak. Urte hareetan sarri bat egiten genduan pastorgintzan eta batez be euskal kulturagintzan. Gogoan ditut batez be aldikada baten egiten genduzan mendi

ibilaldiak. Ibilaldi hareetan zenbat kontu...! Patxadaz eta prisa barik kontaturikoak. Hareetatik batzuk gogoan geratu jatazan; beste batzuk joaniko denboraren haizeak eroan deustaz gomutatik.

Orduan konturatu nintzan ni Juanito kontalari on-ona dala. Ahoz on-ona, eta idatziz, liburu txukun honetan erakusten dauan baizen ona. Familia girokoak, honeen artean, esaterako, osaba Gillermoren soldadutzako balentriak, haren bertsozaletasuna; ikasle girokoak, esaterako, Comillasen futboleko "internazionalak" ziranekoak, Anaia Artaberen kontuak; sotana usainekoak: Durango aldeko lege zaharreko abade xeblebre batzuen pasadizo eta esaera xeblebreagoak... horreek eta antzekoak izan ohi ziran ibilaldi hareetan eta bestelako uneetan bere errepertoriotik ateratako konturik ezagunenak. Batzuk liburuan egoki tolesturik aurkitu ditut; beste batzuk, hemen sarri-sarri egiten dauan hego-haizeak eroango zituan norabait... Eta, gainera, ez dago guztia liburuan sartu beharrik. Gauza arin-arinak eta xumeak izanik, oroimenaren jostagarri hor aske uztea komeni da...

Sarrera luze honen ostean, *Karmel* aldizkariaren irakurleei liburu honen egilearen zertzelada batzuk emotea eta, labur-labur bada be, liburuaren beraren edukia aurkeztea komeni da.

### **Egilearen zertzelada batzuk**

Juan Bizente Gallastegi Duñabeitia 1933ko urriaren 27an jaio zan Durangon. 1958ko irailaren 28an hartu eban abadetzako Ordena. Haren abadetzako lekuak eta karguak honeek izan dira: Iurretan bertako parrokiako abade laguntzailea eta Oromiñoko arduraduna. Markina aldean Etxebarriko abade laguntzailea eta Markina-Xemeingo Eskola Laboraleko zuzendariordea. Markina aldean, gainera, Barinagako arduraduna izan zan; Mallabiko Gereaa auzoko arduraduna. Elorrioko parrokoa izan zan Markina aldetik joan ondoren. Azken urteotan, erretiroa hartuta, Elorrion bertan eta Atxondon jarraitzen dau abade-ze-

reginetan laguntzen. Izenari jagokonez, “Juan Bizente” papere-tan gorde dan izen ofiziala izango da, baina etxean eta lagu-nartean behintzat “Juanito” eta parroketako jendearentzat “Don Juan” izango da beti.

Dana dala, orain hartaz idazten badihardut, euskal letretan egin dauan ekarpenagaitik da eta alde hori da batez be *Karmel* aldizkariaren irakurleei agertu nahi deusdana. Egoki adieraz-ten dau alde hori Adolfo Arejitak “Montorretik tontorrera adi” izenburua dauan hitzaurrearen ataltxu baten; holan dino:

“(…) jakina da gutariko askorentzat, Gallastegi aspaldirik izan dala idazte zalea, batzuetan herri-kazetari zeregina be-teaz, beste batzuetan, arlo diferenteen gaineko idatzi labu-rrak onduaz: euskera, gizartea, eleizea edo osterantzeko gai-ren baten inguruan. Hor hirurogeiko urteetan Arrate Irratira-ko ‘Oiztik Anbotora’ eritxon astean-asteango saioa atontzen eban Durangotik (...). Harrezkero hainbat euskal aldizkari-tan idatzi izan dau noizik noizera: behinola *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia*-n, oraintsuago *Alkarren barri*, Bizkaiko Eleiz-barrutiaren aldizkarian, *Eraz*, eta batez be Durangerriko *An-boto* izenekoa”.

Liburu sailean, euskaraz pentsatu eta sorturiko lehenengoa eta bakarra hauxe izango dala uste dot: *Tontorretik begira*. Orain arte itzulpenei ekin deutse batez be, helburu praktikoei eta bete beharreko hutsune batzuei begiratu. Hona berak hon-etaz dinoana:

“Bi edo hiru liburutxu eta liburu bi be itzultzeko aukerea izan dot. Antzina, Kili-Kilik argitaratutako *William Tell* eta bes-te zerbait; gero, nagusien katekesirako, *Hauxe bartu dogu Je-susengandik*; Urkiolan Joseba I. Legarzak eginiko *San Antonio. 8. mendeurrena. 1195-1995*. Horreek hirurok, bizkaieraz.

Hurrengokoak, liburu handiagoak, batueraz: Paloma Oroz-cok San Pablo argialetxean umeentzat dotore egokitutako eta argitaratutako *Biblia*; eta, argialetxe berean, Javier M. Suescu-nek idatzitako *Me aburro en Misa, Aspertu egiten naiz Mezatan*.

TONTORRETIK BEGIRA

Juan Bizente Gallastegi

# TONTORRETIK BEGIRA

## ABADE BATEN OROIPENAK

Sarrera:  
Adolfo Arejita



SUTONDOAN SORTA  
LABAYRU IKASTEGIA  
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDATZIOA

## Edukia labur-labur

Ez dau atzera-aurrera handirik egiten kontaketa-harian. Gehienbat jazoerak jaio ziran ordenan ezartzen ditu. Abadegin-tza dator hasieran, “Oroipenak eta esker emotea” lehenengo atal txikiaren ondoren. Argi dago, abadetza dala oroipen honeen bilgunea, oroipen honeek haria ardatz baten inguruan legez batzen ditua. Azpitu-tua be “Abade baten oroipenak” jarri deuta, eta abadetzako urrezko ezteguen tontoretik begira jarri jaku. Gero, umetatik hasita gaur arte, ordena kronologikoan, garantzen ditu oroimenean gordeta izan dituan hainbat gauzatxu. Umetako gauzak laster baten eta orrialde gitxitan agertu deuskuz. Behingoan ikusiko dogu umea mutiko eta gazte eginda. Baina, jakina, gomutan geratzen diranak ez dira eguneroko gauza arruntak izaten gehienetan, barruan zauskada bizia eragin dabenak baino:

“Zelako umezaro pozgarria, nahiz eta nire bizitzako lehenengo oroipen biak garratzak be garratzak izan: azpian harra-pau ninduan Durangoko bonbardaketak eta Elorrión guda-riak, hiltako arrisku handiz, Intxorta mendirantz gure aurretik igarotea.

Bai. Sirena hotsa! Amaren esturea! Kanean zehar arineketea! Sirena hotsa barriro!

Trenbidea igaro eta ondoko lantegi barruko horma ondoan zorro mordoa; zorroak babestzat harturik, emakume batzuk, neure ama euren artean, umeak magalpean dituela!

Handik laster, abioien burrunbada ikaragarria! Bat-batean sekulako eztandak, sua alde guztietan, kea, hautsa... larritasuna! esturea! izuikara! negarra!...

Durangoko bonbardaketea”.

Umetako bigarren oroipena gudariak Itxortara bidean ikusi zituaneakoa. Ez dakiala ziur, dino, jazoera latz biotatik zein izan

zan lehenengo oroipena eta zein bigarrena. Holan kontatzen deusku:

“Arratsalde euritsua. Elorrion. San Juan kalean, amamaren etxe aurrean. Gudari aldra bat, lepoa jantziz eta tramankuluz beterik eta iskiluak beso gainean daroezala, eta kantuz, ‘Ez dirala pasauko Intxorta menditik...’ Emakume batzuk eurei begirara, negar-arpuloak begietatik dariela.

Hiru urte nituan orduan, ia lau, baina barru-barruan eta bizi-bizirik geratu jatazan jazoera bien irudiak”.

Lehenengo letrak ikasten Santa Susanan, a,e,i,o,u ikasten. Moja on-onak zirala dino. Maitasun handiz irakasten eutsela Santa Susanako mojatxuak. “Hori bai, dan-dana erderaz. Eta *España es nuestra amada patria, a la que...*”

Behin, dino, egun bat edo bi eskolara barik geratu zala, bizioak, hau da, hesteetako zizareak zitualako. Biharamunean moja irakaslea eskolara zergaitik huts egin eban kontuak eskatzen hasi jakonean, hau erantzun ei eban: ‘Madre, he tenido vicios’. “Ez nekian nik bizioak erderaz *lombrices* ziranik”.

Jesulagunekin lotura estua izan dau Juanitok. Beraren ahotan eta luman nekez agertuko da jesulagun izena; beti jesuita. Durangoko jesuitetan izan zituan hainbat adiskide aitatzten ditu. Hareetariko batzuk gerora jesuita egingo ziran, esaterako, Gorrotxategi anaiak, Karmelo eta Jabi. Jose Antonio Aldekoak be, geroago, bide bera hartu ebalu dino. Auzo-auzoko adiskidea eban hau eta leihotik leihora berba egiten ei eben. Jesuita sartu eta Deustuko Unibertsitateko idazkaria eta metafisikako irakaslea izan zala dinosku. Irakasle batzuk be gomuta on-onatzi dabe berarengan:

“Jesuitetako irakasleen artean, nahiz eta asko eta onak izan gehienak, baten gomutapena geratu jat ahaztu ezinda. Lekeitioko aita Kortabitarte, Patxi Korta guretzat. Ikasketetan euske-rea danik be ez genkianean eta aintzat be hartzen ez zanean,

harek bere ikasgaiko galdera batzuk euskeraz egiten euskuzan etxean euskeraz berba egiten genduanoi, eta eskolatik kanpora be geure hizkuntzan jarduten eban gugaz”.

Nahiko gazterik, jesuitetan ikasle zala, hasi zan musikaz zaltetzen. Hona hemen berak honetaz dinoanetik hartuta lerro batzuk:

“Amagandik neukana jesuitetan gehitu jatan Aita Keller-en eskuz. Frantziako jatorria eukala uste dot eta Euskal Herria maite ebala, Zarautzegaz eukan lotura estuagaitik. Ikasleen abesbatza txikitxu bat zuzentzen eban, jesuitetako eleizan izaten genduzan meza eta eleizkizunetan”.

Gorago be aitatu dot Comillasen Juanito futboleant “internazionala” zalako zer hori. Futboleant, antza danez, bazan norbait. Durangon, jesuitetan batxilergo osoa ez eukan ezkeron, hangoa amaiturik, Komentu kalean egoan akademia baten egin eban hurrengo urtea. Hango lagun batzuk aitatzen ditu, batez be hilak diran batzuk. Horreen artean futbolari oso ospetsu bat:

“Eneko Arieta-araunabeña, Arieta lehenengokoa, nire kintoa eta Athleticetako eta nazioarteko futbolari indartsua eta ospetsua izango zana.

Zenbat bider esan eustan honek, futbolari entzutetsua zala, beste batzuen aurrean, beragaz jokatu behar nebala Athleticen. Baina ez da hori handiena! Handiena da, ni ia sinisteko gertu egoten nintzala”.

Comillasko Unibertsitateko urteak, jakina, alde askotako ikasle eta irakasleak batzen ziran han eta, lorratz sendoa itzi dabe gure durangarrarengan. Halan be, laburpen txiki-txiki honetan, eraikin hari kanpotik pixka bat begiratu eta bira egin ondoren, Kantabria aldetik Bizkai alderantz joko dogu barrion, Iurreta eta Markina-Xemein aldera, Elorrion eta Atxondon geure ibilaldia amaitzeko.



Turretan izan zan abadetzako destinoen lehenengo geltokia. Turretako abade-laguntzailea eta, Turreta barruan, Oromiñoko arduraduna izan zan. 1959. urtea zan. Hara helduta laster, Gozaindegira joan ei zan. Eta zain egon behar egongelan, bikario nagusiak noiz deituko. Bere antzera itxaroten egoan bat ikusi eban han, ordura arte ezagutzen ez ebana. Zer edo zer esatearren, eta han erdera baino ez zala entzuten-eta, “Esperando, eh!” esan ei eutsan.

“Berak, irribarretxua ezpanetan, sorbaldeagaz atzera-aurre-ratxu bat egin, eta badinost: ‘Zer, euskalduna zara?’. Nik: ‘Bai, horixe!’. Berak, barriro be irribarre eginaz, eta Arratiako doinu bereziaz: ‘Orduan, zergaitik dinozu ba *esperando?*’. ‘Ez deustazu minik egiten gero, bestetara baino. Ez dakizu zelako poza emoten deustazun’ esan neutsan.

Biok alkarregaz joan ginan gero trenean eta lagun handi egin ginan. Orduan Apatamonasterioko parrokian abade egoan Txomin Artetxe zan gotzaindegian topo egin neban abade hori”.

Oso ondo hartua izan zan Juanito abade egon dan leku guztietan. Izan be, berezko jatortasun eta gozotasuna dau, eta hartu-emonetarako atsegina eta berba-lagun ona dogu. Horrez gainera, beste dohain batzuk be baditu ume, gazte eta adinekoen artean onartua izateko: musika, kantua, abesbatzak eratzen eta zuzentzen trebea izatea, herri-antzerkietan be nahiko sartua egotea. Gaur egun gauzak guztiz aldaturik dagoz, eta musika, euskera, antzerkia eta kultura gauzetarako ez da abadeagana jotzen; bestera: ahal bada, baztertu egiten da eta sotana-usainik ez da nahi izaten inguruan. Kristinau onak eta eliztar jatorrak bai estimatzen dabe, baina esparru erlijiosorako, Jainkoaren hitza aldarrikatzeko, katekesirako eta liturgiarako gehienbat. Lehenago, ostera, 60ko hamarkadan hasita 80ko urteetara arte, gutxi gorabehera, abadea erlijio-ko maisu izanaz gainera, euskeraren eta herri-kulturaren

gidari be izan ohi zan gure herri txikietan, eta kasu batzuetan, aurrerapen sozialaren bultzatzaile be bai.

Beraz, esan daigun leku guztietan pozik onartua izan bada be, berak Iurreta eta, Oromiño batez be, ez dituala ahaztuta:

“Inoiz eta inon zoriontsu izan banaz, nire Iurretako urteetan izan naz.

Batek *Rusia txiki* esaten eutsan Oromiñori, orduan esaera horrek eban esangura okerraz. Niretzat, ostera, orduko *Rusia txiki* ez eze, *Zeru handi* izan zan eta da Oromiño”.

Arriandín, Juanito hara heldu baino urte bi lehenago, 1957an, sortu zan ezpata dantzari taldea. Urte batzuk geroago, horko kide batzuk talde barriak eratu zituen.

Uztailaren 18an dantzan egin behar eta ez euken oraindiko dantza-ikurrinik.

“Arrazolara joan ziran arrianditarrok, nire izenean, Jose Antonio Retolazagana, ea itxiko eutsen.

‘*Dieciocho de juliorako?* Ezta inondik inora be! Eskatzen auzartu be!’.

‘Ez, baina ez da uztailaren hamazortzia dalako, Santa Maña dalako baino, Arriandiko jaiak’.

‘Ah, orduan bai, pozik be!’

Oromiñon be, orduan sortutako taldekoak ziran gero gazteagoei irakasten eutsenak.

Ez ziran neskak, dantza arloan be, atzean geratu. Orduantxe sortu ebezan talde bi, Durangoko Lidia Pérez irakasle zala.

Oromiñoko bost taldek egin eben dantzan, batera, San Markosen baseliza ondoan, nik alde eginda laster, orominarrak adurra erioela egozala”.

Horretan be batasuna eta elkartasuna bultzatu nahirik ebi-  
len Juanito. Iurretako kofradi auzunean eten bakoa ei zan ez-  
pata dantzarien tradizioa: “Beti izan dira Oromiñoko eta  
Arriandiko eta beste kofradietako dantzariak Iurretako sasoi  
bateko eta besteko dantza-taldeetan”.

Hainbeste talde eta onak ikusirik, behin edo behin, esatera-  
ko, San Migeletan, talde guztiak batera dantzan egitea gauza  
ederra litzatekela otu jakon Juanitori eta jaien antolatzaileak  
oso egokitzen jo eben haren ideia, baita jaietako egitarau-pape-  
retan jarri be.

“Ene Maria eta Jose! Haserre be haserre jarri jatazan nire la-  
gun handi ziran Jose Mariren ume ezpatadantzari guztiak (...).

Aldi baten bakarrik danak batera egiteak izan eban arrakas-  
teak eta zentzunez gauzak ikusteak, baretu eban haserrealdi  
hori. Hurrengo urteetan be, uste dot beti egoten zala herriko  
talde guztiek batera egiten eben egun bat edo une bat. Sarritan  
aitatu dot gero hori orduan, ume izanik, aurka egozanekin, eta  
barre egiten dabe. Eurak izan ziran gero danak alkarregaz egi-  
teko zaleenak”.

Gotzaindegitik gidatzen zan destinoen trenaren azken au-  
rreko geltokia, hemen trenik izan ez arren, Markina aldean  
izan zan; zehatzago esanik, Etxebarriko abade-laguntzaile eta  
Eskola Laboraleko zuzendariorde izendapena emon eutsien.  
Hemengo oroipenak ugariak dira eta bizipenak be aberatsak.  
Eskolak, abesbatzak, antzerkiak, Eskola Laboraleko “Auxilia-  
rrak”, Don Julian Olazabalaga. Gizon handi honi asko zor deu-  
tsa Markina aldeak; Eskola Laboralaren ingurutik hainbeste  
ekintza sozial bultzatu zituan, batez be baserriaren eta baserri-  
tarren aurrerapenerako. Honen ondoan ageri jaku gure Juani-  
to. Behin baino gehiagotan pentsatu dot elkarren osagarri zira-  
la biak. Orain dala gutxi gure artetik joana izanik, liburu honen

errapaso arin eta nahiko nahasian, hari buruz dinozan gauza batzuei erreparatu deutset:

“Eskola Laboralean danen buru eta zuzendari, Julian Olazabalaga. Aparteko gizona.

Orduko denporan gitxi izango ziran Julianek baino munduko bazter gehiago ikusi ebenak. Nire Markinako hamaika urteetan, Australia zan berak zapaldu bako kontinente bakarra.

Estatu Batuetan, aurretik be sarritan egonda egoan, New Yorkeko parrokia baten hango abadearen ordezkook egiten.

Txilen, osaba bat zala eta, behin baino gehiagotan. Markinak bere lepo hartu eban Arenillasko misinoan be egin ebazan egun batzuk. Afrikan, ez dakit zein nazinotan, berari karterea ostu arren, laster beraganatu eban.

Europan, “Altzairuzko oihala edo teloa”ren hemendikalde-tik eta handikalde-tik. Bai, jesuita bategaz batera, *zaldi bikoan*, ikasle txartel bategaz baliaturik, orduan inork amesetan be egin ezin eikean lekuan agertu jakun gure Julian, Moskun, hain zuzen be.

Urte baten, ez dakit zein egunetik zein egunetara Markinatik alde ez egiteko eskabidea egin eustan, berak kanpora joan behar ebala eta. Heldu zan eguna, eta danok, besteak jakingo ebalakoan, alkarri itauntzen: Oraingoan nora joan jaku Julian? Inok be ez genkian. Handik laster, posta-txartela, nondik eta... Japondik.

Etorri zanean, Gotzaindegira joan zan Markinara orduko. Han, orduan bikario nagusia zan Karmelo Etxenagusiak, Markinatik etorrelakoan eta adarra jotearren: ‘Hi Julian. Orain be hi, gitxienez, Txekoeslovakiatik etorriko hintzan’. Besteak, aurpegiari zirkinik eragin barik: ‘Ez, Tokiotik najatok’.

Gerora, badakit Txinan be izan dala. Non ez?

Toki bakotxetik barriztatze egitasmoren bat ekarten ebanez, bildur izaten ginan zein izango ete zan aldatu behar izango genduana edo barrien barri sartu beharko genduana”.

Eta Julian Olazabalagaren oroipen honekin amaitzen dogu *Tontorretik begira* liburuaren laguntzaz egin dogun ibilalditxo, azkeneko geltokira, Elorrio eta Atxondo aldera, heldu barik, Juanito bere oroipenen artean, ondo merezitako erretiroan, baina oraindino txiri-txiri lanean eta idazten itzirik.

Luis Baraiazarra Txertudi